

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

## Kronika zuriak

**B**aikorra izateko arrazoirik ez dagoela diote askok, datorren urtea gogorra izango dela, estu hartuko gaituela krisiak. Mezu ezkorren uholdea etorri zaigu gainera.

Sasoi hobeetan albiste gehienak txarrak direla iruditzen bazaigu, zer esanik ez orain. Liskarrak eta hondamenak erraz topatzen dute lekua komunikabideetan. Zenbat eta zalaparta gehiago, hobe, tentsio informatiboari eusteko.

Ia dena da ezkorra albistegietan, zorione-koak mezu apokaliptikoen eta gizakiaren gaiztotasunaren teorikoak. Badirudi kazetari ausarta izateko, mila pasartetan trebatutako tipo gogorra, ilunpetan ibili beharra dagoela beti.

Nik, aldiz, kronika beltzak baino nahiago ditut zuriak, eta ez nuke horregatik errealtatetik kanpo egon nahi. Gauzak dauden moduan egonda, albiste onen atzetik ibiltzea, iluna baino gehiago argia bilatzea, jokabide berritzailea da, eta ia baita iraultzailea ere, ez baitago modu eraginkorragorik aurre-iritziak gezurtatzeko. Hori ere bada komunikabideen lana.

Mundua baikor ikustea, pixka bat bada ere, ez dago modan, ordea. Kronika zuria motela da, txisparik gabekoa. Gertaera onak, historia baikorrak badaude, bai hemen eta bai Mozanbiken, baina komuni-



Gauzak dauden moduan  
egonda, albiste onen atzetik  
ibiltzea, iluna baino gehiago  
argia bilatzea, jokabide berritzailea  
da, eta ia baita iraultzailea ere



kabideek ez daukate gogo askorik horiek jasotzeko.

Adibide bat aipatzearen, duela gutxi Nigeriak satellite bat bidali du espaziora Txinak lagunduta. Baina hori ez da albiste izan.

Afrikan dena da iluna, dena tristea, gosea eta gerrak besterik ez, horixe ikusi dugu beti.

Komunikabideek uste duguna baieztatzen dute gehienetan, bestela audientziak bizkarra emango liokeelakoaren beldur. Eta guk geuk ere horixe nahi izaten dugu, pentsatzen duguna egunkarrietan edo telebistan konfirmatuta ikustea.

Jakinekoka da pertsonak txakurrari haginka egitea dela albiste, eta ez alderantziz.

Hala ere, pentsatu nahi nuke badagoela beste biderik gertaerak komunikabideen erakusleihora eramateko, izatez albiste tankerarik ez badute ere.

Pedro Miguel Etxenike zientzialariak dio kazetariok ongiaren mezu-lari izan behar dugula, sentimendu positiboen hedatzaile. Arrazoi guztia ematen diot. Mundua hain txarra izango balitz, gizakion arraza aspaldi egongo zen desagertuta. Kronika beltza nagusi den sasoiari, begirada zuria aldarrikatzen dut, mundua ikusteko modu positiboagoa, eta askotan baita erreala ere. Gure artean ditugun makina bat izorritzaileen eragina leuntzeko bada ere. ■

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Irungo Real Unioni egokitu zitzaion hango Real Madril-en aurka egin behar izatea. Berdintasunean jokatzea

zen konfrontazioak galdetzen zuena. Bien arteko ezberdintasunak agerikoak dira, elkarte bakoitzaren errealtate finantzaria, bazkidetza, bezeria, taldeen lehiaketa maila, bat nazioartekoetan ospetsuenetarikoa, bestea naziorik gabekoa, Estatuko hirugarren mailan aspaldi, bigarrenera igo ezinik dabilena. Lehen partidari, Irunen etxeak etxean irabazi, batzuen eta besteen harridurarako. Bertako Peña del Real Madrideko zenbait kide ezagutzen dut Real Unioneko akziodun. Txan-

## Madrilén

txak eta adar-jotzeak jasan eta bigarren partidarako labanak zorrotzuta zeuzkaten. Bernabeu ez da Gal. Real Unioneakoak han galdu egingo dira,

hark laurogei milako neurria du. Nire belarriz entzuna. Baina zelaiko berdea, berdintsua da neurritz. Hamaikakoak biak. Baloia, bakarra. Ateak, txandakatuak. Real Unionekoentzat, aukera historikoa ehunda laurogeita zenbait minututan gauzatu litekeena, handi-maundientzat gogogabea. Hortik orekatu litezke eta parekatu baliabideak. Txikiak jakin du bereak erabiltzen. Handiari, konturatzerako joan zaio denbora. Politikari profesionalek balukete hor zer ikasia. Hasi daitezela lanean. ■